

Donostiako Hamabostaldia Xabier Lete poeta omenduko du Arantzazun

Martikorena, Artze, Zubiria, Valverde, Berzaitz eta Petti izango dira, besteak beste

OIER ARANZABAL

DONOSTIA. Xabier Lete euskal abeslari eta poeta zendua omenduko du Donostiako Musika Hamabostaldia ostegun honetan, 19.00etan, Arantzazuko santutegian. Gauza jakina da Tomas Luis de Victoria zein Wolfgang Amadeus Mozart oso maite zituela Letek eta inoiz baino hobekiago esanda, *Musika Aitzaki*, Letek ere bere lekutxoia izango du aurtengo edizioan. "Sentikortasun handiko gizona zen bera, benetan eskuzabala", aitortu du Jose Antonio Etxenikek, Hamabostaldiko zuzendariondokoak. Aralarreko mendizerrara 2006 inguruan berarekin egindako ibilaldi bat gogoratu du ere, hunkituta: "Guardetxetik jaisten ari ginela Mozarten *Visperas de confesore* aditu genuen. Lurdes Iriondo jada gaixo zen etxean eta Letek telefonoz espreski deitu zion musika liluragarria entzuten ari zela esateko. Etxera eramango ziola berak ere entzun zezan. Hortik zortzi egunera hil zen Iriondo", azaldu du. Hain zuzen, bere bikotearekin hiletan elizkizunean jarri zituen pieza hauek bere emazteari egindako omenaldian.

Bi zati izango ditu Leteren omenaldia Arantzazun egingo den kontzertuak. Lehenengoan Iruñeko Ganbera Abesbatza arduratuko da Letek hainbeste aipatu zituen musika klasikoko konposiziook jendaurrea eramateaz. Bigarrenean, poeta beraren abestiak izango dira protagonista euskal kantagintzako ahots ezagunek kantatuta. "Ohore bat da idazle handi honen omenaldian parte



Jimenez, Goikoetxea, Valverde eta Gartzia, Leteri Bilbon egindako omenaldi batean. ARGAZKIA: OSKAR MARTÍNEZ

hartzea. Hainbeste norabide ezberdinetan pentsatu eta pentsatu arazteko gaitasuna zuen poeta honek zurrara sortu zidan", zioen Iruñeko Ganbera Abesbatzako zuzendari Josep Cabrék.

Aproposa da abagunea, aurten Tomás Luis de Victoria musikagilearen mendeurrena baita. Omenaldi bikoitza egin ahal izango zaie, beraz, bai Lete eta bai Victoriari, bere *Officium defunctorum sei ahotsetan*, Leteren kuttuna

zena, interpretatuz. "Luis de Victoria musikaren historiako konpositore garrantzitsuenetako bat da, zalantzarik gabe", azaldu zuen Cabrék, "emozio mordo transmititzen zuen artifizio gutxirekin". Garai hartarako "minimalista" ere kontsidera genezakeela esan zuen abesbatzako zuzendariak, musika liturgikoaren "erreferentzia garrantzitsua".

Victoriarenaz gain, Mozarten bi pieza garrantzitsu abestuko dituz-

te: *Ave Verum* eta lehenago aipatutako *Visperas de confesore*, zuzendariaren esanetan "aurkezpenik ere behar ez dutenak". "Leteren abegiko ziren konposizioak emanaldi batean biltzea zen helburua", amaitu zuen.

IZEN HANDIAK Euskal musikaren ahots ezagunenek hartuko dute Iruñeko Ganbera Abesbatzaren testigua Arantzazuko emanaldian. Musika klasikotik Leteren klasi-

koetara salto egingo dute bertaraturako ikusleek. Miresmenetik eta oroimenetik jardungo dira Antton Valverde, Amaia Zubiria, Pier Paul Berzaitz, Erramun Martikorena, Petti eta Joxean Artze, hauetarik batzuk bidelagun izan zituenak bere etapa artistiko ezberdinetan.

Ez Dok Amairu talde mitikoko kide izan zen Artze Leterekin batera. Poeta abangoardista usurbildarrak olerki batzuk prestatu ditu berezi bere lagunaren omenez Oñatin errezeitatzeko. Bi zatitan banatuta errezeitatu ditu gainerako abeslarien kantu eta kantu artean. "Uste dut sortu ditugun bertsoak, abeslari bakoitzak bere ukitu berezia emanda, oso ederak direla", agertu zuen Jose Angel Arbelaitz Xabier Leteren oroimenez ekimenaren sustatzaileak. Petti musikari beratarren "zubi-lana" ere azpimarratu zuen, "hasierako Lete basatiaren izpirituarekin", era moderno batean, taularitzen baititu abestiak. "Gazte askorentzako deskubrimentu handia izango dela Lete, Pettiren gitarra elektrikitik entzunda".

Gitarra jotzaileak lau abesti joko ditu: *Altzateko jaun, Euskal Herri nerea, Haizea dator eta Lore bat zauri bat*. Abestiak blues eta soul estiloez janzten saiatu dela azaldu zuen atzo egindako aurkezpenean. "Haien arima mantenduz, kantua indartzen saiatu naiz gitarra elektrikoarekin", gehitu zuen musikariak, "horretarako niretzat aproposak ziren doinuak aukeratu ditut".

Euskal kulturaren ikur bilakatu den literato eta abeslariaren oroimenez entzungo dira doinuak Oñatiko santutegian. Doinuak "edertasunaren neurri bakarrean", bere *Sinisten dut* poemak zioen legez; baina ez inor galdu izanagatik, norbait guztien go-goan oso present dagoelako baizik.

Emanaldirako sarrerak, 15 eurotan, soilik Musika Hamabostaldiko bulegoetan geratzen dira, Oñatiko erosketa lekuetan amaitu ostean.

Una película grabada en Iruñea triunfa en Bollywood

CONCHA BARRIGÓS

Iruñea. A María del Mar Fernández (Cádiz, 1979) la llamaron hace un año de Bollywood para que grabara la rumba de *Solo se vive una vez*. Le dieron mil euros y no supo más hasta hace tres semanas, cuando se enteró de que *Señorita* es "la canción del verano" en la India y que el filme lleva recaudados 8,4 millones de euros. "Estoy contenta y orgullosa", explica la cantante, que en los 17 años que lleva en los escenarios jamás imaginó que la llamada que recibió preguntándole si le gustaría grabar una canción para la poderosa industria cinematográfica india iba a tener semejante impacto. La película, dirigida por Akhtar, se rodó el verano pasado en Iruñea, Valencia, Madrid y Barcelona con "protagonistas" como los Sanfermines, la tomatina de Buñol y, por supuesto, el flamenco, al que pone voz e intención Fernández. En apenas tres semanas *Solo se vive una vez* ya ha recaudado más que ningún otro estreno de la India en 2011 y se prevé que supere los 70 millones de espectadores.



Antonio López compra hortalizas en Iruñea

Iruñea. "¡La calabaza más grande!", es lo primero que pidió el pintor Antonio López en una de las verdulerías del mercado del Ensanche de Iruñea, adonde acudió ayer para proveerse de los productos necesarios para pintar bodegones

dentro del taller que va a impartir en la Universidad de Navarra. Una treintena de alumnos de Euskal Herria, Catalunya, Valencia, Andalucía, Madrid, Valladolid y Palma, seleccionados entre más de 50 aspirantes, participarán has-

ta el próximo viernes, día 12, en la VI edición del taller de pintura *Maestros de la figuración*, que impartirán López, Juan José Aquerreta y José María Mezquita bajo la dirección de la profesora Inmaculada Jiménez. FOTO: EFE